

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

CAICEDO SOPEÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Ikerketa espedientea hastea

2020ko abuztuaren 14ko erabaki bidez, Caicedo Sopeñako auzoen kontzeju irekiak honako hau erabaki zuen:

1°. Honako hauen titulartasunari buruzko ikerketa espedientea hastea: 5 poligonoko 274 lurzattia, 5 poligonoko 263 lurzatiaren inguruko bideak eta 223, 275 eta 265 lurzatiaren inguruko bideak.

2°. Ikerketa espedientea hasteko erabakia ALHAOn argitaratzea. Erabaki horren ale bat jendaurrean jarriko da, 15 egunez, iragarki taulan, eta eraginpekoek egoki irizitako alegazioak eta agiriak aurkeztu ahal izango dituzte. Horretarako, hilabete izango dute, epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

3°. Ikerketa espedientea hasteko erabakia Estatuko Administrazioari eta Autonomia Erkidegoko Administrazioari helaraztea, hala badagokio, beren eskubideak baliatu eta bidezkoa dena alegatu ahal izan dezaten.

4°. Prozeduran interesa dutenei jakinaraztea, eta, aldi berean, lurzati horien mugakide diren katastro lurzatiaren titularrei.

5°. Frogaldia irekitzea, hilabeteko epean, korporazioko iragarki taulan argitaratzeari utzi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta espedientea ireki dela banan-banan jakinaraztea espedienteak eragindakoei.

6°. Frogaldia amaituta, interesdunei entzuteko hamar eguneko epea irekitzea.

7°. Legez araututako izapideak egin ondoren, ikerketa espedientea ebaztea; kontuan hartuta haren edukia kasuan kasuko lurzatiaren izaera edo erabilera publikoaren aldekoa den ala ez, inbentarioa zuzendu edo berretsi egin beharko de Jabetza Erregistroan, eta, bidezkoa bada, ofizios berrikusteko espedientea hasi beharko da.

Caicedo Sopeña, 2020ko urriaren 22a

Lehendakaria

EDUARDO MARQUÍNEZ MONTOYA